

Autonomia



www.ehbai.eus

IPAR EUSKAL HERRIARENTZAT AUTONOMIA ESTATUTU BATEN OINARRI POLITIKOAK

2024ko abendua

FONDEMENTS POLITIQUES D'UN STATUT D'AUTONOMIE POUR LE PAYS BASQUE NORD

Décembre 2024

www.ehbai.eus



IPAR EUSKAL HERRIARENTZAT AUTONOMIA ESTATUTU BATEN OINARRI POLITIKOAK

2024ko abendua

1 – SARRERA

Ipar Euskal Herriarentzat Autonomia estatutuaren aldarrikapenaren historia luze batean errotua da. Goraki erraten ahalko genuke ere Ipar Euskal Herriaren ezagupen instituzionalaren aldarrikapenean lehen eskaera dela. Izan ere, 1947an Jean Etcheverry-Aintchart (1914-2003) diputatuak lege proiektu bat aurkeztu zuen «autonomia estatutu baten alde Iparraldearentzat frantses Errepublikan». Ondotik, mugimendu abertzaleak urtetan zehar beste autonomia estatutu proposamen batzuk egin ditu:

- 1978 urteko legegileetako hauteskundeetan EHAS mugimenduak defenditutako proposamena.
- 1983an Iparretarrak Autonomia kontzeptua helburu gisa eta borroka ezberdinen bateratze gisa jarri zuen mahai gainean «Autonomia lehen urratsa askatasunaren bidean». Hamar urte beranduago, 1993an, autonomia estatutuaren proposamen zehatza plazaratu zuen.
- 1994an «Autonomia Eraiki» kolektiboaren autonomia proposamena.
- 2007an Batasuna alderdiaren autonomia proposamena.

2012an, Euskal Herria Baik eskumen zabaleko Lurralde kolektibitate autonomo baten alde egin zuen. Bere lehen kongresuan (2022ko udazkena), EHBaik autonomia estatutu berri baten oinarri politikoak definitzea erabaki zuen. Erabaki hori egoera bikoitz batean kokatzen da.

Batetik, bai hauteskunde emaitzetan baina baita jendarteko maila eta eremu ezberdinetan beraien

aldarrikapenetan ere, frantses Estatuaren baitako estaturik gabeko nazio ezberdinetan, mugimendu abertzaleen eta independentisten eraginak gora egiten duela ikusten dugu. Nazio horietako populuek ezagupen eta burujabetza gehiago ukateko duten nahikeria agerikoa da. Ondorioz estatus politikoen bilakaeraz solastatzea bultzatua izan da Paris, bereziki Polinesiar, Kanakyan, Korsikan. Frantses Estatu zentralizatuaren eta estaturik gabeko nazioen artean «modus vivendi» berri bat beharrezkoa da. **Euskal Herrian bertan, azken urteotan fase politiko berri bat gorpuztu da. Mugimendu abertzalearen Bagira prozesuan gogoeztatua izan zen eta bertan Ipar Euskal Herriaren ezagupen instituzionalean urrats berriak egiteko beharra adostu zen. Aurrerapauso berrien perspektiba buruan, EHBaik, ezkerreko abertzaletasunaren proiektuaren ikuspegiarekin bat eginez, autonomia estatutu baten oinarri politikoak gaurkotu nahi izan ditu.**

Bestalde, globalizazio liberalaren ondorio diren mundu mailako aldizkako izaera ezberdineko krisiek sortzen duten ezegokortasun egoera gero eta handiago agerian gelditu da: finantziarioak, osasunekoak, energetikoak... Metamorfosi ekologikoa bezalako erronka ikaragarrien parean kokatzen gaituen era anitzetako krisiari erantzuteko, nazioarte mailan kooperazio eta elkartasun mekanismo berriak beharrezkoak dira. Baina ezinbestekoa da ere herritarrek eskura dituzten tokian tokiko baliabideak mobilizatu ahal izateko egoera batean jartzea. Erresilientziak berekin dakar ingurune hurbilean aritzeko botere azkartua («**empowerment**»). Haatik, herritarren bertan ekiteko boterearen indartzea ezin da gauzatu beraien erabakitze ahalmena indartu gabe. Egungo krisi globalaren desfioei erantzun ahal izateko baitezpadakoa den tokiko demokrasiaren azkartzearen beharrak Ipar Euskal Herriaren zinezko ezagupen instituzionala eta politikoa ezinbestekoa bilakatzeko du gure iritziz.

2 – AUTONOMIA ESTATUTUAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

A - AUTONOMIA KONTZEPTUA

Autonomia kontzeptua Europa mailan aspalditik onartua den kontzeptua da. Europako Kontseiluak 1985ean «tokiko autonomiaren Karta europarra» onartu zuen. Horretan finkatzen duen subsidia-riotasun printzipioaren arabera “ardura publikoen kudeaketa, orokorrean, herritarrengandik hurbil- len diren agintarien gain izaitea hobe da” (4.1 arti- kulua). Honela, Europako panoraman, autonomia estatusa ez da nehondik ere anakronikoa. Alde- rantziz, XXI. mende hasiera honetan, ikuspuntu jakobinoa zaigu agertzen guztiz zaharkitua. Izan ere, forma erregionala izan, edo federalista (Ale- maniaren kasuan), frantses Estatuak auzo dituen Estatu gehienak autonomia estatutuen oinarrian egituratuak dira: Erresuma Batua, Belgika, Alema- nia, Italia, Espainia...

Hau erranda, zenbait oinarritzko ezaugarriko auto- nomia estatutua definitzen laguntzen dute:

1. Autonomia legegilea:

- Europan eta munduan zehar, autonomia es- tatutuen irizpideetarikoa bat hainbat arlotan erabakitze ahalmenean datza, hots, berezko legeak egiteko lurralde batek dituen ahalmen berezietan, Estatuari berezituak zaizkion esku- menak bazterrera utziz (eskumen erregalia- noak).
- Haatik, autonomia den entitatearen legedia Estatutik datozen araudien (hierarkikoki gainean kokatzen direnak: konstituzioa, lege organikoak) eta nazioarteko itunen menpe da. Egitura auto- nomoak egiten dituen akten kontrol juridikoa gehienetan auzitegi konstituzionalak edota kon- bentzionalak egiten du.

2. Autonomia fiskala:

- Printzipioz autonomia fiskalak elkargo auto- moari berezko baliabide fiskalak bermatu behar dizkio bere esku dituen eskumenak osoki bete ahal izateko.

3. Berezko eskumenen eremu zabala:

- Autonomia orotan aurreikusten da estatusa eta erakunde autonomoaren artean eskumenen ba- naketa, egiturari dagokion berezko eskumenak eta Estatu zentralizatuarekin banatzen dituenak ezberdinduz.

4. Ibilmolde demokratikoa:

- Bizidemokratikoaren oinarritzko printzipioak aplikatuz, egitura autonomo orori sufragio uni- bertsal zuzenak ematen dio zilegitasuna.

Nabarmena da ikustea Europa mailako auto- nomia estatutu garatuena **Åland uharteetako** dela. 30.000 herritar dituen Finlandiako Estatuan koka- tzen den lurralde txiki bat.

- Åland uharteek honako arloetan legediak egiteko ahalmena dute: irakaskuntzan, osasun publikoan, kulturean, ondarean, medikuntzako artetan, ingurumenean, garapen ekonomikoan, garraio eta komunikazioan, tokiko erkidegoen administrazioan, polizian, komunikabideetan, postan.
- Åland uharteek berezko botere fiskala kudea- tzen dute. Tokiko aurrekontuaren baliabideak erakunde autonomoak biltzen dituen zergetatik datoz gehien bat. Erakundeak finkatzen ditu ere zergaren oinarriak eta tasak. Aurrekontuaren zati txiki bat Estatu zentralak biltzen duen zerga batzuen berriz isurtzetik datorkio «kompentsa- zio» isurtze moduan (adibidez: aduanen zerga eskubideak).
- «Bizitoki eskubide» bat aplikatzen da: soilik gutxienik 5 urtez segidan Åland uharteetan bizi izandako herritarrek eros lezakete higiezin edo lur ondasun bat. 5 urtez uharteetatik kanpo biziz gero, bizitoki eskubidea galtzen dute Alandeko herritarrek.

B - AUTONOMIA ESTATUTU BATEN OINARRI POLITIKOAK

Euskal Herria zazpi probintziez osaturiko Nazioa da: Lapurdi, Baxe Nafarroa, Xiberoa, Nafarroa Garaia, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia. Hizkuntza eta kultura bera duen komunitate bat da, komunitate historiko berekoa eta etorkizun berekoa. Izan ere, Euskal Herriaren burujabetza osoa helburu duen proiektu abertzalea bidezkoa da. Abertzaleentzat, autonomia etapa bat besterik ez da gure Nazioaren burujabetza osoaren bidean.

Horiek horrela, Ipar Euskal Herriarentzat autonomia estatutua indarrean jartzeko prozesu politikoa bi alditan deklinatzen da:

- **Lehen aldia:** Euskal Herriko ezaugarri nagusiak kontuan hartu beharko dituen frantses Estatuarekiko partaidetza demokratiko eta ebolutibo baten formalizatzea. Akordio horrek Ipar Euskal Herriko herritarren baieztapena izan beharko du.
- **Bigarren aldia:** akordio horren terminoak frantses koadro juridikoan inplementatzea, eta autonomia estatutua indarrean jartzea. Bigarren aldi horretan frantses Konstituzioan Euskal Herriaren aipamen berezia sartu beharko da kontuan harturik aurretik aipatutako partaidetza akordioa. Horrez gain, akordio hori deklinatzen duen lege organiko batek estatutu horren ezaugarriak zehaztuko ditu.

Euskal Herria eta frantses Estatuaren arteko partaidetza akordio demokratiko ebolutiboa

Euskal Herrian autonomia estatutu tradizio zabala du. Lehen autonomia estatutua 1931n formalizatu zen (Lizarrako estatutua) Hego Euskal Herriko probintzietan. Ondotik, 1936an egungo Euskadiko hiru probintzientzat autonomia estatutua onartua izan zen. Azkenik, frankismoaren amaieran gaur egun oraindik ere indarrean diren bi autonomia estatutu martxan jarriak izan ziren: Gernikako estatutua Euskadiko probintzientzat 1979an, eta Nafarroakoa (Foru Hobekuntza) 1982an.

Tradizio luze horrek eta Hego Euskal Herriko instituzioen funtzionamenduan ezkerreko abertzaletasunak lortu esperientzia zabalak indarturik, gure ustez Ipar Euskal Herriko autonomia estatutu batek bi baldintza nagusi errespetatu behar ditu:

- **Frantses Estatuaren partetik Euskal Populuaren ezagupenean oinarritu behar da.** Oinarri hori harturik, menpekotasun harremana bazterrerara utzi, eta erakunde autonomoa eta **Estatu zentralaren arteko lotura zinezko partaidetzazko akordio demokratiko batean oinarritu behar da.**
- **Autonomia ez da independentzia.** Baina autonomia estatutu baten ezaugarriak eta finkapen moldeak prozesu politiko dinamiko batean bermatu behar dira. **Azken horrek egoera instituzionala geldirik atxiki baino, Ipar Euskal Herriarentzat etorkizunari begirako estatusaren bilakaerarako aukerak irekirik uzten ditu, herritarren gehien-
goak libreki hautaturiko borondatearen arabera.**

Euskal Herriko ezaugarri nagusiak errespetatzen dituen partaidetza akordioa

Euskal Populuaren ezagupenean oinarriturik, Ipar Euskal Herria eta frantses Estatuaren arteko partaidetza akordioak oinarritzko hiru ezaugarri errespetatu beharko ditu.

IPAR EUSKAL HERRIKO HERRITARREN ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Partaidetza akordioak herritarren gehiengoaren onarpena lortu beharko du. Onarpen prozedura Ipar Euskal Herriko herritarren erreferendumen bidez egiten da.

Horiek horrela, **akordio horretan zehazki aipatuko da frantses Estatuaren partetik euskal herritarren erabakitze eskubidearen errespetua.** Erabakitze eskubide horrek emanen dio, hain zuzen ere, izaera ebolutiboa frantses Estatu eta Ipar Euskal Herriaren arteko partaidetza harremanari.

Era berean, autonomia estatutuak euskal herritarren erabakitze eskubidea bermatzen dituen dispositiboak barneratuak izanen ditu. Erkidego Autonomoak bere baitarik erreferendum prozedura erabakigarriak antolatze ahalmen berezia izanen

du. Horrek Ipar Euskal Herriko estatutuari eman dakioken bilakaerari begira, baina baita **euskal herriarrak ukitzen dituen beste edozein gaietan, herriarren borondatearen adierazpen demokratikoa bermatuko du.**

Bere erranahi aitzinatuenean, erabakitzeko eskubidea populuen oinarriko eskubideari lotua da. 1966ko Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean adostua da. Bere 1. artikuluan honako hau dio: «Herri guztiek daukate autodeterminazio eskubidea. Eskubide hori dela medio, libreki erabakitzen dute beren estatus politikoa eta libreki bilatzen dute beren ekonomia, gizarte eta kulturaren garapena».

Frantziak 1980an Itun hori (1980ko ekainaren 25eko 80-460 legea) izenpetu zuen. Bestalde, Populuen ezagupena eta autodeterminatzeko eskubidea frantses konstituzioaren barne dira, Kanakyari lotua da (1998ko uztailaren 20ko 98-610 konstituzio legea). Izan ere, **Kanakyak aipamen berezi bat du frantses konstituzioan** (XIII titulua – Kaledonia Berriari loturiko antolaketa trantsitorioa, 76 eta 77 artikuluekin) **1998ko maiatzaren 5ean izenpeturiko Noumeako akordioa** konstituzionalizatzen duena. Azken horrek kanakiar populua errekonozitzen du anbiguotasunik gabeko hitzekin: «kolonizazioak kanakiar populuen duintasuna kaltetu du. (...) komeni da kanakiar populuari kendu zaion nortasuna itzultzea». Bestalde, Kanakyan hiru autodeterminazio erreferendum antolatutako izan dira.¹

Erabakitzeko eskubidearen erranahi murrizt batean, 2003ko frantses konstituzioaren erreformak tokiko elkargoei erreferendum erabakitzailak antolatzei aukera baieztatzen diela nabarmentzen ahal dugu (72-1 al. 2 artikulua).

EUSKARAREN KO-OFIZIALTASUNA

Euskara Euskal Herriko hizkuntza nazionala da, Lapurdiren, Baxe Nafarroaren eta Xiberoaren berezko eta jatorrizko hizkuntza da.

Hizkuntza hau frantses Estatuak bultzaturiko zapalkuntzaren biktima da eta debeku zein gizarte bazterkeria neurriak pairatu ditu. Neurri horiek euskara abantzu desagertzea eragin dute. Soilik kontzientzia hartzei eta herri mobilizazioari esker berpiztu ahal izan da 70eko hamarkadan. Eta herri mobilizazioaren presio horrek bultzaturik egitura publikoak euskararen aldeko politikak plantan jartzen hasi dira. Euskara diglosia egoeran da gaur egun lurralde osoan, erran nahi baitu bigarren mailan kokatua dela funtzio sozial guztietan.

Egoera horri begira, beharrezkoa da euskarari estatus ofiziala ematea eta ondotik instituzio autonomoari benetako hizkuntza antolaketa politika eraman ahal izateko baliabideak ematea.

• Euskararen ofizialtasuna

Frantses Estatuak euskararen estatus ofiziala onartu beharko du, Ipar Euskal Herriko herriar guztien hizkuntza eskubideak bermatzeko. Frantsesa bezalaxe, euskara eremu pribatu zein publikoan baliatzen ahalko da. Euskarari ko-ofizialtasun estatus bat eman beharko zaio.

Adibide gisa, Polinesiaren autonomia estatutuari buruzko lege organikoak (2004ko otsailaren 27ko 2004-192 lege organikoa), dio bere 57. artikuluan Tahitiera hizkuntza «ezagutua dela eta zaindu behar dela, (...) Errepublikako hizkuntzaren alboan. Pertsona fisikoek eta eskubide pribatuko pertsona moralek libreki baliatzen dute beraien akta eta itunetan. Horiek ez dira baliogabetuak izanen hizkuntza ofizialean ez direlako idatziak». Hala ere, Estatu Kontseiluaren deliberoek beti Konstituzioaren 2. artikulua betearaztea lehenesten dute. Horregatik euskararen ko-ofizialtasuna aurretik aipatua izan den partaidetza akordioan sartu beharko da, azken hori Ipar Euskal Herria aipagai duen Konstituzioko titulu berezian aipatua delarik. Ipar Euskal Herriko autonomia estatutuaren lege organikoak euskararen ko-ofizialtasunari erreferentzia egiten dio.

• Zinezko hizkuntza antolaketa politika bat

Euskararen berreskuratzeak, normalizazioak eta garapenak zinezko hizkuntza politika bat beharrezkoa dute:

- Euskararen sustapena segurtatzen duena.
- Haren transmisioa eta irakaskuntza bermatzen duena. Horrela, Ipar Euskal Herrian esko-

¹ Noumeako akordioaren arabera, hiru autodeterminazio erreferendum antolatu dira Kanakyan: 2018ko azaroaren 4an, 2020ko urriaren 4an, 2021eko abenduaren 12an. Baina azkenaren legitimitatea ez du FLNKS onartu.

latuak diren ikasle guztientzat nahitaezko irakaskuntza gaia bilakatuko da euskara.

- Jendarte biziaren eremu guztietan haren erabilpena erraztuko duena.

Autonomia estatutuak Ipar Euskal Herriko elkargoari hizkuntza politika anbiziotsu bat indarrean jarri ahal izateko baliabide finantziarioak eta humanoak eman beharko dizkio. Horrez gain, hizkuntza politika indarrean jarri ahal izateko ezinbestekoak diren eskumenak izanen ditu: irakaskuntza (lehen, bigarren eta goi mailakoa), formakuntza profesionala, ikusentzuneke eta hedabideen politika.

ZAZPIAK BAT LURRALDEAREN KONTUAN HARTZEA

Euskal Herria 7 probintzietatik osaturiko Nazio bat da: Xiberoa, Baxe Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Garaia, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia. Lurralde hori gaur egun hiru egitura administratibotan zatitua da: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa (autonomoa), Euskal Hirigune Elkargoa (Ipar Euskal Herrian).

Partaidetza akordioak Zazpiak Bat existentzia onartu beharko du, bai eta lurralde horien integrazioaren bidezko nahikaria ere.

Politika publikoen arloan koordinaketa eta kooperazioa egiteaz gain, Ipar Euskal Herriko elkargo autonomoak askatasun osoa izanen du Hego Euskal Herriko elkargo autonomoekin organoak edo instituzioak sortzeko. Horretarako Europako zuzenbideak ematen dituen aukerak ontzat emanen ditu. Bereziki, Baionako Itunak (1995eko martxoaren 10ean izenpetua) Espainiako zuzenbide publikoko egiturei mugaz gairikoa interes publikoko elkarrekin parte hartzeko aukera ematen die, edo frantses zuzenbideko egiturei Espainiako legedipean diren kontsortzioetan parte hartzeko bidea irekitzen du ere. Bartzelonako Itun berriak (2023ko urtarrilaren 19an izenpetua) Baionako Itunaren printzipioak berresten ditu.

Mugaz gairikoa harremanei dagokienez, egiaztapen hirukoitza egin dezakegu. Lehenik, mugaz gairikoa kooperazio protokolo anitzek eskala desberdinetako

eremuetan mota askotariko eragileak nahasten dituzte (ikusirik eranskina), mugaz gairikoa harremanetan irakurgarritasun eta koherentzia arazoak sortuz. Bestalde, Bidasoako bi aldeentzako egitura publikoentzako kooperazio ezberdinak sortu ahal izan badira, partaidetza horien bidez lanean ari den eragile bakoitzak bere aldetik bere lurraldean berezko ekintzak lantzen ditu. Praktikan, ez da sekula zinezko politika publiko amankomunikatua izan. Azkenik, Pirinioetako bi aldeentzako egitura publikoentzako eskumenen asimetriak benetako arazoak sortzen ditu mugaz gairikoa harremanen garapenerako. Ipar Euskal Herriko autonomia elkargoari emanen zaizkion eskumenen maila handiak arazo hori saihestea ahalbidetu eta mugaz gairikoa harremanen potentziala indartzen lagunduko du. Gainera, mugaz gairikoa harremanek pairatzen dituzten beste bi ahulgunerik aterabide bat emateko, mugaz gairikoa begirako zinezko estrategia bat definitzea ezinbestekoa da eremu horretan lanean diharduten eragile guztiekin batera. Ipar Euskal Herriari dagokionez, lan hori elkargo autonomoak eraman beharko du, Alsaziako Europar Elkargoak² egiten duen bezala, eta mugaz gairikoa harremanen eragile nagusia izendatuko da.

Frantses koadro juridikoak ezagutzen duen partaidetza akordio demokratikoa

Frantses Estatua eta Estaturik gabeko Nazio guztien arteko elkarbizitza berri batek ordenantza berria eskatuko du. Bereziki, Konstituzioan nortasun nazionalen aniztasuna sarraraztea eta 2. artikulua aldaketara eta baita indargabetzea ere eskatuko lituzke.

Estaturik gabeko Nazioen ezagupen globala lortu ezean (edo osagarri gisa), azaltzen dugun **prozesu politikoa** Kanakyaren esperientzian eta Korsikako Legebiltzarrak bozkatu prozeduran (2023ko uztailaren 5ean bozkatu 23/089 deliberoa) inspiratzen da nagusiki. **Euskal populuaren ezagupenaren bidean gerta daitezkeen arazo konstituzionalerantzun bat ematen die, aurkeztu berri dugun partaidetza akordioa konstituzionalizatuz.**

Aldarrikatzen dugun akordioak ez du izaera juridikorik, politikoa da. Ipar Euskal Herriko herritarrek erreferendumaren bidez onartuz zilegitasun demokratikoaren indarra emanen dio.

² Alsaziako Europar Elkargoa 2019ko agorriaren 2an bozkaturia izan den lege baten bidez sortua izan da (2019-816 Legea). Ez dago kio Frantziako Konstituzioaren 72. artikuluari.

Ipar Euskal Herria konstituzioan aipatzeari dagokion gaiak atal berezitu batean idatzia izan beharko du (artikulu soil batean baino) eta horri esker Euskal Herriaren berezitasuna zehaztuko da Estatutu bereziko elkargoak aipagai dituen 72. artikulutik kanpo kokatuz. Tituluak berak beharko du:

- Partaidetza akordioa aipatu, Ipar Euskal Herriko herritarren erreferendum bidezko onarpenari erreferentzia eginez.
- Ipar Euskal Herriko autonomia estatutuaren berezitasunaren oinarria azpimarratu: autonomia legegilea eta fiskala autonomia elkargoari onartu zaizkion eskumenen perimetroan.
- Izaera berezia duten esparru batzuetan (adibidez etxebizitza eta lurra) zuzenbide komunitik aparteko neurriak aplikatzeko aukera aktatu (adibidez: egoiliar estatutua).³
- Estatutuaren izaera ebolutiboa aipatu.

Lege organiko batek Ipar Euskal Herriko autonomia estatutuaren esparrua zedarrituko du. Sarreran Estatuarekin baieztatu partaidetza akordioari erreferentzia argia egingen zaio. Autonomia legegile eta fiskalaren ahalmen bereziak marraztuko ditu. Elkargo autonomoaren eskumen eremua azalduko du. Elkargo autonomoaren eskumen eremua azaldu eta bere organoak aurkeztuko ditu: gobernu autonomoa, biltzar erabakitzaileak, egitura parte hartzaileak...

³ Alde horretatik, Konstituzioaren 74. artikulua zehazten duena nabarmendu behar da: «tokiko beharrei erantzuten dieten neurriak hartzen ahalko ditu kolektibitateak herriarren mesedetan, enplegua laguntzen ukateko, lanbide profesionala egiteko lekutzeko eskubidea bermatzeko edo lur ondarea babesteko».

3 – AUTONOMIA ESTATUTUAREN AHALMEN BEREZIAK ETA ESKUMENAK

Frantses Estatuaren baitan dauden instituzio estatutuaren aniztasunak agerian jartzen du «autonomia» bati erreferentzia egiten dion ezagupen politikoak existitzen direla, baina errealitatean zinezko autonomiaren koadro instituzionalari loturiko ezaugarriak izan gabe. Hala gertatzen da adibidez Antilletako Saint-Barthélemy Elkargoarekin. Hala ere, aurretik aipatu dugun autonomia estatutuaren oinarritzko ezaugarrien artean bi dira nagusi: legeak egiteko gaitasuna, eta berezko baliabide fiskalen kudeaketa (legegile eta fiskalitate ahalmen bereziak).

Ahalmen legegile eta fiskal berezi horiek eskumen eremu nahiko zabal batean aplikatu beharko dira Ipar Euskal Herriko erronka ekonomiko, sozial, kultural eta ekologikoei eraginkortasunez erantzun ahal izateko. Eskumen eremu hori aurretik aipatu dugun partaidetza demokratiko eta ebolutibo horren baitan sartua izanen da. Frantses Estatuarekin negoziaturiko eskumen transferentzia prozesu baten bidez eginen da.

A - AHALMEN LEGEGILE ETA FISKAL BEREZIAK

Autonomia legegilea

AUTONOMIA LEGEGILE BATEN AUKERAK FRANTSES ZUZENBIDEAREN BAITAN

Frantses zuzenbidearen baitan autonomia legegilearen kontzeptua zehazteko, frantses konstituzioan Estaturik gabeko Nazioek dituzten estatutuaren heterogeneotasun handiaz ohartu beharra dago.

Korsikak estatus bereziko lurralde kolektibitate dauka frantses **konstituzioaren 72. artikuluan** sartua. 2002ko urtarrilaren 22ko legeaz geroztik, Korsikako kolektibitateak proposamen ahalmena bereganatua du. Ahalmen horri esker uhartearen **instituzioaren antolaketari eta eskumenei begira** legedia eta araudiaren dispositiboan egokitzapenak egiteko Lehen Ministroari eskaera zuzena egin diezaioke. Baina errealitatean dispositio hori ez da ibiltzen egokitzapen eskaera horiek ez dutelako aurrera egiten Parisek segidarik ematen ez dielarik.

2003an frantses Estatuan konstituzioa azkarki berrikusia izan da. Aldaketak kolektibitate guztiak eta berezikiago itsasoz haraindiko lurraldeak ukitu ditu. «Itsasoz haraindiko» Nazioak hiru sailetan sailkatuak izan behar dira.

- **Konstituzioaren 73. artikulua baitan direnak:** Guadalupe, Reunion, Martinika, Guyana, Mayotte. Identitate legegilearen printzipiopean kokatuak dira. Horren arabera, frantses legeak eta araudiak lurralde horietan aplikatu daitezke. Hala ere, egokitzapen legegileak egiten ahal dira koadro legala eta arauena birmoldatuz egoeren aniztasunen arabera.

- **Konstituzioaren 74. artikulua menpe daudenak:** Saint-Barthélemy, Saint-Martin, Saint-Pierre-et-Miquelon, Wallis-et-Futuna, Tahiti. 74. artikulua menpe dauden kolektibitateei berezitasun legegile baten printzipioa aplikatzen zaie. 2003an egin den konstituzioaren berrikustean, beraien estatus bereziaren koadroan, «aplikatuak zaizkien legeak eta arauak zein baldintzetan egiten diren» kudeatu dezaketela zehazten da. Kolektibitate horiek aniztasun normatibo bat daukate, eta teoriarik bi lege iturri dituzte. Batetik, eremu erregalanoari loturiko Estatuaren legeak eta kolektibitate horiek aplikatu ditzaketen dispositibo azkar baten bidezko legeak. Bestetik, beste edozein eremutan harreman juridikoak erregulatzen dituzten tokiko edo ohiturazko legeak. Baina kasu honetan ere, estatutuaren aniztasunak ditugu. Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorrak (CGCT) Saint-Bathélemy eta Saint-Martinentzat kolektibitateen «autonomia» aipatzen du, baina guziz formala den erreferentzia da, errealitatean beraien estatus juridikoa «berezko administrazioaren» menpe baita, hau da deszentralizazio logika bati lotua da. Tahitik aldiz, 2004an lege organiko baten bidez adostua izan den autonomia estatutua du (2004-192), eta horren bidez

«herriko legeak» bozkatzeko aukera du. Halere, praktikan akta administratiboak baizik ez dira.

• **Kanakya kasu berezia da** eta frantses Estatuaren baitan erreferentzia gisa ikusi behar dugu autonomiari dagokionez. Lehenago zehaztu bezala, Kanakya ez da ez 73. artikulua, ezta 74.aren menpe ere. Frantses Konstituzioan aipamen berezi bat dauka (XIII. artikulua). Horrela, Estatu Kontseiluaren delibero batek (2006ko abenduaren 13ko 279323 deliberoa) dio, Kanakya betiere frantses lurraldekoa izanagatik, ez dela Errepublikaren Lurralde Kolektibitate bat, ondorioz CGCT kodea ez zaio aplikatzen. Kanakyak baimen bereziko estatutu bat badu Kaledonia Berriko herritartasun ezagupena ematen diona. Horri esker bozkatzailleak ezberdinuak dira ohiko hautesleei begira, frantses erregalianoak diren eskumen partekatua du (bereziki nazioarteko harremanei dagokiona), eta benetako botere legegilea du berari dagokion eskumenetan. Kanakyak «herriko legeak» bozkatzeko, desberdinu beharko ditugunak Tahitik duenarekin.

Tahiti eta Kanakyako autonomia estatutuen konparaketak funtsezko bereizketa bat azpimarratzera bultzatzen gaitu bereziki arlo legegilean bata zein besteak duten ahalmen berezian zein «herri legeen ezaugarrietan» ezberdintasunak dituztelako.

Kanakyako «herri legeak» balio legegilea dute eta uhartearen berezko legeak dira Parisen frantses Estatuak onartu legeekin bizi direnak. Promulgatu aurretik Kontseilu Konstituzionalaren kontrolpean ezarriak dira. «Itsasoz haraindiko» Nazioek dituzten malgutze koadroak baino harago doaz, «lege indarra» dute (1999ko martxoaren 19ko Kaledonia Berriko estatutuari buruzko lege organikoaren 107. artikulua).

Tahitiko «herri legeak» «egiazko» lege bezala ezagutuak ez diren akta batzuk dira artxipelagoaren autonomia estatutuak ez baitie «lege indar» hori argiki ematen. Estatu Kontseiluaren, eta ez Kontseilu Konstituzionalaren, kontrolpean diren akta administratibo batzuk bezala ikusiak dira.

Zinezko autonomia mailarik ez duen «mozorroturiko» botere legegilea desberdinu behar dugu beraz egiazko autonomia bati lotua den botere legegile

osoaren ariketarekin. Kolektibitateak egiten dituen aktek berez legetari erreserbatuak zaizkion eremuetan eskua-hartzeko duten autonomia arautuan datza botere legegileko materiala. Halere, natura administratiboak dute, eta normen hierarkiari lotuak dira, kontrolak Estatu Kontseiluak egiten baititu. Botere legegile organikoaren kasuan, kolektibitateak hastapeneko botere normatiboak du, eta indarrean jartzen dituen aktak, normen hierarkian, lege zentralen balio berdina dute eta soilik Konstituzioaren eta Kontseilu Konstituzionalaren kontrolpean dira.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, autonomia legegilea ulertu beharko da botere legegile osoa betetzeko ahalmenarekin.

BOTERE LEGEGILE BAT ZERTARAKO? EGOILIAR ESTATUTUAREN ADIBIDEA

Azken urteotan lurren eta etxebizitzaren prezioen emendatze handiak jasaten ditugu. Emendatze horren alde handi bat leporatzen ahal zaio bigarren etxebizitzak egiteko higiezin salerosketari, baina baita prezioen emendatze handiaz baliatzea helburu duen joera espekulatibo hutsari ere. Ondorioz, errenta maila nahikoa ez duen Ipar Euskal Herriko biztanleriaren parte handi batek⁴ arazoak ditu etxebizitza eskuratzeko edo proiektu profesionala gauzatzeko (laborantzan adibidez). Arazo hori gehien pairatzen duten biztanle gazteek herrian lan eta bizitzeko duten nahikeria gauzatzeko arazoak dituzte.

Merkatuaren legeak baliabide finantzarioak dituzten eragileei beraien interes partikularrak herritarren interes kolektiboaren gainean kokatzeko aukera ematen die gure gazteriaren etorkizun perspektibak zapuztuz. Egoera hori ez da onargarria. Ez da onargarria higiezin eta lurrari loturiko gaiak merkatu librearen bidez erregulatuak izatea; eskubideen arloari lotu beharko lirarteke. Frantzian, DALO legeak aukera hori ematen du (2007ko martxoaren 7ko 2007-290. legea) "herritar guzientzat etxebizitza eskubidea" legalizatzen duelarik.

Printzipio horri lotuz, Ipar Euskal Herriaren Autonomia estatutuaren ahalmen legegile berezia erabiltzen ahalko da egoiliar estatutua finkatzen duen lege bat bozkatzeko. Korsikako Asanbladak 2014ko apirilaren 24an horrelako estatutuaren alde bozkatu zuen (14/042. deliberoa). Lurren eta higiezin

⁴ Ipar Euskal Herrian 40.000 bigarren etxebizitza daude, hau da, higiezin %21 inguru.

ondasunetan gertatzen diren operazio espekulatioak saihesteko estatutu horrek dio soilik Euskal Herrian bizi proiektu bat (Herrian lan eta bizi) dutela baieztatzen duten pertsonak (fisikoak edo moralak) Ipar Euskal Herrian higiezin edo lur ondasun bat erosten ahalko dutela. Horrela, egoiliar estatutuaren bidez soilik jabegoa lortzen ahalko du etxebizitza nagusi bat molde iraunkorrean okupatzen duela justifikatzen ahalko duen pertsona fisiko batek (bost urteko gutxieneko tartea). Halaber, soilik egoitza nagusia Euskal Herrian duten pertsona moralek ahalko dituzte higiezin eta lurren saleroste transakzioak egin gure lurraldean.

Azpimarratzekoa da neurri hori ez dela inondik ere ezohikoa Europa mailan. Alderantziz, egoiliar estatutua martxan jarria izan den hainbat adibide badira, edo antzekoak diren neurrien aplikapena:

- Egoiliar estatutuaren aplikazioa barneratzen duen Aland uharteen Autonomia Estatutu desberdinak (1920, 1951, 1990). Europar Batasunak onartu du 1994an Finlandiar Estatua integratua izan delarik.
- Italian, Trentoko Autonomia Erkidegoan, Adige Altuko lurraldean lege batek (tokikoa) ez die uzten egoiliarrek ez direnei bigarren etxebizitza kopurua sobera handia den zonaldeetan etxebizitza eraikitzen.
- Balear uharteetan (espainiar Estatuaren baitako autonomia erkidegoa), hainbat neurri egoiliarren eskubideak babesten dituzte.

Autonomia fiskala

Autonomia fiskala beste oinarritzeko printzipioa da Ipar Euskal Herriko Autonomia estatutuari begira. Printzipio horren arabera, elkargo autonomoak berezko baliabide fiskalak ukan behar ditu beregain hartu dituen eskumen guztiak osoki bete ahal izateko. Frantses Estatuan, printzipio horrek finantza publikoak birzentralizatzeko duen joerarekin talka egiten du.

FRANTSSES ESTATUAK FINANTZA PUBLIKOAK BIRZENTRALIZATZEKO DUEN JOERA

Estatua gaur egun tokiko elkargoen aurrekontua-

ren «tokiko lehen emalea» da. Estatuarekiko tokiko botereen menpekotasun egoera bat sortzen du horrek, beraien aurrekontuaren finantziak bermatzen baitu. Lurralde kolektibitateen Estatuaren finantzamendu hori bi mailetan egiten da: Estatuaren diru-laguntzak eta dotazioak; estatu mailako fiskalitatea transferentzia. Estatuaren dotazioak eta diru-laguntzak lurralde kolektibitateen aurrekontuaren %30 osatzen dute. Azken unean, Estatuak du erabakitzen kopurua eta Estatuaren kudeaketari (onak edo txarrak) loturiko norabide politikoak inposatuak izateko arriskua dago (adibidez defizit publikoaren murriztea). Bestalde, 2000tik, Estatuak lurralde kolektibitateak diruztatzen ditu estatu mailan biltzen diren zergen bidez. Estatuak BEZaren bidez bilduriko produktuaren zati bat transferitzen du. Orokorrean, ematen den dirutza hori Lurralde Kolektibitateen fiskalitatearen %50 osatzen du. Aldiz EPCletan edo Elkargoetan berezko baliabide fiskalak gehiengoa dira (Euskal Elkargoari dagokionez %70ekoa da). Lurralde kolektibitateek esku-ratzen dute horrela «txeke» bat fiskalitate mailan egiten diren hautu politikoetan esku-hartzerik izan gabe: Nork ditu zergak ordaintzen? Zein mailatan (zerga tasa)?

Estatuak esku-hartze hori indartzeko joera ukan du. Historikoki, Lurralde kolektibitateen baliabide fiskalak Frantzian bi iturri ditu. Batetik, zerbitzu zehatzak diruztatzen dituzten zerga bereziak daude: zaborren biltzeko zerga, uraren fakturaren bidez ordaintzen diren ur edangarriari eta uren garbitzeari loturiko zerga bereziak... Bestetik, aurrekontu orokorra diruztatzen duten tokiko zergak daude; enpresei dagokie zerga horietako batzuk ordaintzea (aitzinako zerga profesionala), eta beste batzuk etxekoei edo familiei (etxebizitza zerga, lurren zerga...). Azken urteotan Estatuak tokiko zerga zenbait kendu ditu. Zerga profesionala 2010an kendua izan da. Enpresen balio erantsiaren gaineko zerga 2027an desagertuko da. Etxebizitza nagusiari loturiko zerga 2023an kendu zuten. Baliabide fiskalak zalantzan jarriz herritarren eta tokiko elkargoen arteko zerga harremanak makurtzen dira, eta horren ondorioa fiskalitatearen birzentralizazioa da. Eskualdeek ez dute gehiago botere fiskalik eta Departamenduek boterea oso mugatua dute dirutan. Trukatutako etxe aldaketaren eskubideak deitu zergekin bereziki dute diru iturria baina, tasa mailakatua ez denez, finantziakio iturri horren kontrolik ez daukate.

AUTONOMIA FISKALA IPAR EUSKAL HERRIARENTZAT

Ipar Euskal Herriko elkargo autonomoak zergak bildu ahal izatea burujabetzaren eta instituzio horren ibilmolde egokiaren baldintza gakoa da. Autonomia fiskalak ondoko irizpideak errespetatu beharko ditu:

- Lurraldeak dituen zerga-baliabide guztiak biltzea eta erabiltzea (tokiko zergak, Estatuari dagozkion zergak).
- Finantzaketan Ipar Euskal Herriko indar eta eragile guztiak parte hartu ahal izateko oinarri zabal bat finkatzea (enpresak, familiak, kontsumitzaileak, eragile publikoak...)
- Burujabetza fiskalaren babes juridikoa Estatuak egiten dituen aldaketa legislatiboekiko.

Ondorioz, Ipar Euskal Herriko Kolektibitate autonomoak zerga-administrazioaren betebeharra luke enpresa eta familiei jartzen ahal zaizkien zerga guztiak bilduz, baita kontsumoari loturiko zerga ezberdinak ere.

Baliabide fiskalaren banaketa elkargo autonomoa eta Estatu zentralaren arteko alde biko hitzarmenen bidez eginen da Ipar Euskal Herrian indarrean diren eskumenen, frantses Estatuarekin partekatutako diren eta Estatuaren esku diren eskumenen kostuaren arabera.

Elkartasun printzipioarekin bat egiteko, elkargo autonomoak biltzen dituen fiskalitatearen ekoizkin horien partekatze hitzarmenek perekuazio klausulak ukaten ahalko dituzte. Klausula horiek bakoitzaren aberastasun maila identifikatzeko irizpideak finkaturik, arazo ekonomikoak dituzten frantses Estatuak beste lurralde batzuen aldeko finantza-transferentziak egiteko aukera emanen dute.

Berezko botere fiskalaren kudeaketa Autonomia estatutuari estuki lotua zaio eta funts publikoen erabilpenari loturiko bi kezka nagusiei erantzungo dio:

• **Eraginkortasun eta erantzukizun irizpide bat**

Fiskalitateak kolektibitate publikoari esku-hartzea izateko finantza baliabideak ematen dizkionez, politika publikoen palanka nagusia bilakatzen da. Birbanatzeko eta akuilatzeak dituen aldeei begira, fiskalitatea honako eremuetan eragin zehatzak

dituen tresna bat da: justizia sozialean, lurralde antolaketan, garapen ekonomikoan, eraldaketa ekologikoan, espekulazioaren aurkako borrokan. Horrela, botere fiskala hurbileko eskala batean kokatzeak aukera ematen du fiskalitateak eta dituen akuilatze efektuek lurraldearen eta bere herritarren beharrei erantzun diezaieten. Diru publikoaren erabilpenean eraginkorrago izateko aukera ematen du.

Tokiko fiskalitatea desegituratuz, frantses Estatuak fiskalitate publikoaren zirkuituak korapilatu ditu herritarrei begira. Eta horrek eragin duen birzentralizazioak mana fiskalaren iturriak eta laguntzak zein diren ulertzeko aukerak ilundu ditu. Eraginkorrago izateaz gain, Ipar Euskal Herriko autonomia fiskalak gardentasun gehiago ekarriko du baliabide fiskalaren kudeaketan. Eskuratutako berezko eskumen eremuari esker, elkargo autonomoak dirutza publikoaren erabilera arduraz guztiak hartzeko aukera izanen du, indarrean jarriko dituen politika publikoen eraginkortasuna eta aurrekontuaren kudeaketa egokiaren kontuak emanez, eta baita dituen birbanaketa mekanismoen berri emanez (zerga arintze eta zerga salbueste zatiak, zergaren bilakaeraren zatia...).

• **Irizpide demokratiko bat**

Jakinez herritarren kontrol politikoa harreman fiskalaren bidez egiten dela, behar demokratiko bati ere erantzuten dio, Ipar Euskal Herriko elkargo autonomoari berezko botere fiskala emanez.

Fiskalitatea zentralizatuz, frantses Estatuak tokiko boterea eta herritarren arteko harreman demokratikoak urrunditu ditu. Alde horretatik, gogoratu dezagun, tokiko hauteskundeetan, hautesleek hautatu behar dituzten hautagaiek ez dituztela menderatzen beren programak obratzeko baliabideak. Izan ere, programaren gauzatzeak finantza-baliabideak beharrezkoak dituen politika publikoak eskatzen ditu (beraz fiskalitatea) eta tokiko hautesleek ez dute horretan kontrolirik, Estatu zentralaren esku baitago. Frantses Estatuaren zentralizazio fiskalak zergadun herritarren, hots, tokiko politika publikoen diru-iturrien, eta hautesleen arteko loturak hautsi ditu.

Fiskalitatea berriz ere lurraldean kokatuz, Ipar Euskal Herriko Autonomiak herritarren kontrol demokratiko askoz eraginkorrago bultzatuko luke. Gardentasuna eta argitasuna eskas duen frantses

sistema fiskalarekin ez bezala, Ipar Euskal Herriko herritarrek ematen diren zerbitzuak eskaintzeko eskatzen zaien ahalegin fiskala konparatzeko aukera izanen dute. Politika fiskalaren oinarritzko bi parametroei dagokion debateak ezagutzeko erraztasun gehiago izanen dute: Nork ditu zergak ordaintzen? Zein mailatan (Zerga tasa)?

Oinarri fiskalei dagokienez, oinarri fiskala ahal bezain zabala lortuz gero, Ipar Euskal Herriko elkargo autonomoaren ibilmolde on bat ziurtatuko dela uste dugu, banaketa soziala, lurralde zuzentasuna, garapen ekonomikoa, eraldaketa ekologikoa lagunduz. Oinarrietatik at, garrantzitsua litzateke elkargo autonomoak zerga tasa finkatzea; bi ezaugarri horiek benetako autonomia fiskala defenditzen baitute.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA ETA FINANTZA-AUTONOMIA

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako probintziek Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) osatzen dute, 1979ko Gernikako Estatutuaren aplikazio (partziala) dela-eta. Horri esker fiskalitatearen arloan ahalmen berezi garrantzitsuak dituzte. Kontzertu ekonomikoak kudeatzen ditu. Kontzertu ekonomikoak EAEn eta espainiar Estatu zentralaren arteko finantza mailako harremanak zehazten ditu. Bi aldetan banatu dezakegu: batetik zergak biltzeko moduak, bestetik, finantza-baliabideen banaketa Gasteiz eta Madril artean.

Zerga guztiak euskal probintzia bakoitzeko administrazioak biltzen ditu: diputazioak. Baina erkide Autonomoak ezin ditu zerga guziei loturiko arauak finkatu. Izan ere, zeharkako zerga tasak Madrilek finkatzen ditu, eta Estatu guztian berdinak dira. Hori gertatzen da bereziki BEZarekin. Eskumen fiskalari esker EAEk, aldiz, zerga zuzenak kudeatzen ditu, bereziki: Soldadari loturiko zergak, enpresen zergak, ondareari loturiko zergak, ondorengotza zergak... Hala ere, eskumen hori Madrilen bozkatuak diren legeek kudeatzen dute, norma delarik presio fiskala Espainia osoan homogeneoa izan behar dela.

Administrazio fiskala tokiko agintariak kudeatzen dutenez, Euskal Autonomia Erkidegoari bere eskumenak bete ahal izateko berezko baliabide fiskalak ukatea bermatu dio. EAEko eskumenetan baliatzen ez diren gehiegizko baliabideak berriz banatzeko negoziatioak bideratzen dira: kupoak. Kupoak 5 urtetik

behin negoziatua da. Baina, Estatu zentralizatuarekiko menpekotasun harremana dela-eta, negoziatio horietan Estatuaren iritzia gaina hartzen du, tokiko autonomiaren eskumen eremutik at, Estatuari doakion EAEn zerga-baliabideen zatia Estatuaren aldebakarreko aurrekontu-hautuen arabera baita. Bestalde, gertakari batzuek erakutsi ahal izan duten bezala, Espainiako parlamentuak uko egin diezaioke kupoaren berritzeari.

